

2021 / 2022 ikasturtea

**Eutanasian oinarritutako osasun-hezkuntza programa,
Donostiako Arantzazu ospitaleko gaixotasun terminalak
arduratzeko erizainei zuzenduta.**

Leyre Michelena Iztueta

LABURPENA

Sarrera: Eutanasia, mediku batek gaixo eskatzailearen sufrimenduarekin amaitzeko eragindako heriotza da. Prozesua luzea eta gogorra da, bai gaixoarentzat, bai profesionalentzat, alderdi askoren desoreka ekartzen baititu berarekin (arloan biologikoa, psikologikoa, soziala, familiarra eta ekonomikoa). Erizaintzak prozesuaren urratsak ezagutzea eta emozioen maneio egokia egitea funtsezkoa da prozesua ondo atera dadin, bizi-kalitatea, autonomia, ongizatea, justizia eta erantzukizun moralak bezalako faktoreak beti kontuan izanda, ahalik eta zainketa egokienak eman ahal izateko eta gaixoaren duintasuna uneoro bermatzeko.

Helburua: Donostiako Arantzazu ospitaleko gaixotasun terminalak arduratzen diren erizainei eutanasiaren prozesuari buruzko osasun programa bat diseinatzea.

Metodologia: Osasun heziketa programaren PIO galderari erantzunez, eta barneratze eta kanporatze irizpideak jarraituta, bilaketa bibliografikoa iturri desberdinetan egin da: datu-baseetan (Pubmed, BVS eta Dialnet) eta web-orri desberdinetan. Proiektuaren egitura eta programazioa egiteko aldiz, “Gral eskuliburua” eta eredu desberdinak hartu dira erreferentzia moduan.

Plangintza: Programa 5 saioetan landuko diren 5 gai-multzoetan banatuko da. Honetarako, osasun-agente desberdinek hartuko dute parte, gaiak behar bezala jorratzeko. Metodologia pedagogikoari dagokionez, programa hau partaideen parte hartze aktiboan oinarritzen da. Bukatzeko, ebaluazioa hiru zatitan banatuko da; emaitzen, prozesuaren eta egituren eta baliabideen ebaluaketa egingo baita.

Ekarpen pertsonala: Nahiz eta Espainian eutanasia 8 hilabete daraman legeztatuta, gaur egun informazio asko aurkitu dezakegu gaiari buruz, baina egindako bilaketan ez dira erizainei zuzendutako osasun-hezkuntza programarik ikusi. Hala ere, pazienteari zuzenki eragiten dion arazo bat da eta ondorioz, erizaina ezinbesteko papera betetzen du osasun hezitzailearen rolean, asko eman baitioke hiltzeko laguntza prozesuari.

Hitz gakoak: Eutanasia, gaixotasun terminalak, erizainak, osasun heziketa programa.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1 OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA	1
1.2 DIANA TALDEAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA	3
1.3 DIANA TALDEAK EUTANASIAREN INGURUKO EZAGUTZEN, GAITASUNEN, JARREREN ETA ITXAROPENEN IDENTIFIKAZIOA	3
2. HELBURUAK	3
3. METODOLOGIA	4
4. PROIEKTUAREN GARAPENA	5
4.1 TALDE DIANA	5
4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK	6
4.3 METODOLOGIA PEDAGOGIKOA	7
4.4 EDUKIAK EDO GAITEGIA	7
4.5 KRONOGRAMA	25
5. EBALUAZIOA	26
6. EKARPEN ETA GOGOETA PERTSONALA	27
7. BIBLIOGRAFIA	28
8. ERANSKINAK	33

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. ERANSKINA: Erizainen ezagutzen identifikazioaren galdetegia	33
2. ERANSKINA: PIO egituran oinarritutako deskriptoreak eta hitz gakoak	37
3. ERANSKINA: Datu baseetan egindako bilaketak eta emaitzak	38
4. ERANSKINA: Osasun hezkuntza programaren kartela	39
5. ERANSKINA: Edukiak garatzeko proposatutako metodologia teknikak	40
6. ERANSKINA: 1. saioko heriotzari buruzko 1 ariketa	41
7. ERANSKINA: 1. saioko heriotza duinari buruzko 2 ariketa	42
8. ERANSKINA: Funtsezko komunikazio-trebetasunak zainketa aringarrietan	43
9. ERANSKINA: Aldez Aurreko Borondateen dokumentua	44
10. ERANSKINA: Aldez Aurreko Borondateen dokumentuaren datuak autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera	48
11. ERANSKINA: Aldez Aurreko Borondateen dokumentuaren datuak autonomia erkidegoaren eta adinaren arabera	49
12. ERANSKINA: Aldez Aurreko Borondateen dokumentuaren datuak autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera	50
13. ERANSKINA: Eskatzaileak eutanasia aurrera eramán ahal izateko bete behar dituen nahitaezko baldintzak	51
14. ERANSKINA: Eutanasia eskatzearen pausuak	52
15. ERANSKINA: Eutanasia legearen aplikazioaren prozesua	53
16. ERANSKINA: Eutanasia eskaera baten flujograma	56
17. ERANSKINA: Aldez Aurreko Borondateen iragazkia	58
18. ERANSKINA: Eutanasiaren 1. modalitatean zainbidetik erabilitako medikazioa	63
19. ERANSKINA: Eutanasiaren 2. modalitateko administrazio oralean erabilitako medikazioa	64

20. ERANSKINA: Materialaren kit-aren bideoa	65
21. ERANSKINA: Eutanasia aurrera eramateari buruzko ariketa	66
22. ERANSKINA: Maslach Burnout Inventory (MBI) galdetegia	68
23. ERANSKINA: Emozio positibo eta negatiboak	70
24. ERANSKINA: Erretiroa eta erregulazio teknikak	71
25. ERANSKINA: 4 zutabeen teknika, eguneroko emozionala	72
26. ERANSKINA: Cuidando la salud mental del personal sanitario	73
27. ERANSKINA: Hezitzaileek proiektuaren prozedura ebaluatzeko errubrika	77
28. ERANSKINA: Parte hartzaileek proiektuaren prozedura ebaluatzeko errubrika	78
29. ERANSKINA: Parte-hartzaileek programaren egitura eta errekurtsoen ebaluazioa	79
30. ERANSKINA: Hezitzaileek programaren egitura eta errekurtsoen ebaluazioa	80

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: PIO egitura	4
2. TAULA: Barneratze eta kanporatze-irizpideak	5
3. TAULA: Osasun heziketaren gaitegia	8
4. TAULA: Lehen saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak	10
5. TAULA: Bigarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak	14
6. TAULA: Hirugarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak	17
7. TAULA: Laugarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak	20
8. TAULA: Bosgarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak	24
7. TAULA: Osasun hezkuntzaren kronograma	25

ARGAZKIEN AURKIBIDEA

1. ARGAZKIA: Eutanasia eta suizidio lagunduaren estatus legala mundu mailan 2021. urtean	2
--	---

1. SARRERA

1.1 OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA


Bizitzaren amaiera muturreko gaitzekin iristen denean, pazientearen autonomia lehenetsi behar da eta, une oro, haren duintasuna errespetatu (1). Kasu hauetan, eutanasia hitza adierazten da. Antzinako grezierazko eu (“ona”) eta thanatos ("heriotza") hitzetatik dator (2) eta begi bistaz nahiko hitz sinplea dirudien arren, dilema etiko, moral, legal eta sozial askoren aurrean jartzen gaitu gaur egun, heriotza eutanasia aurrera eramatearen emaitza baita (1). Beste era batera esanda, eutanasia mina eta sufrimendua amaitzeko eragindakoa heriotza da, bereziki gaixotasun baten ondorioz. Helburua bizitza sufrimendurik gabe amaitzea du eta praktika hau mediku batek egiten du. Hala ere, badirudi definizio etimologiko bat ez dela nahikoa kontzeptu honetaz hitz egiten dugunean, honi buruz dugun nozioa eta praktika aldatu egin baitira historian zehar. Beraz, eutanasia hitza era global batean ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da sufrimendua, bizi-kalitatea, autonomia, ongizatea, justizia eta erantzukizun moralala bezalako faktoreak eranstea, horiek ematen baitiote oinarri nagusia arazoa ebaluatu ahal izateko (3).

Praktika hau aurrera eraman ahal izateko, pazienteak bi baldintza bete behar ditu nahi eta nahi ez. Lehenengoa, pazienteak osasun egoera larrian aurkitzea izango da, inolako sendabiderik gabeko gaixotasun edo gaixotasun terminal bat pairatzeagatik. Eta bigarrena, prozesua beti pazientearen borondatez aplikatzearen beharra izango da. Horrez gain, eskatzaileak 18 urte baino gehiago izan beharko ditu eta erabakiak hartzeko gai izango da (4).

Eutanasiari buruzko eztabaida, bai bioetikaren, bai zuzenbidearen ikuspegitik, gure eta gure inguruko herrialdeetan azken hamarkadetan zehar zabaldu izan da. Martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoan adierazten den bezala, Gorte Nagusiak, eutanasia 2021eko martxoaren 24ean onartu eta legeztatu zuen Espainia mailan (2) eta horrek aldaketa handiak suposatu ditu osasun-arreta mailan.

Aitzitik, nahiz eta legea baieztatu egon, kontzientzia-objekzioa existitzen da. Profesional sanitarioek prozesuan parte ez hartzeko eskubidea dute hala uste badute (5). Izan ere, 188 profesionalek eman dute izena kontzientzia-eragozle gisa Euskadin, eta horietatik 29 erizainak dira. Hala ere, gaur egun, kopuru hori osasun arloko langileen %1,9a suposatzen du, eta, beraz, kontzientzia-eragozleen zifra «oso baxua» dela esan dezakegu (6).

Eutanasia eta suizidio lagunduaren legeztapenarekin, Espainia praktika hau legezkoa bilakatu duen munduko zazpigarren herrialdea da, Herbehereak, Belgika, Luxenburgo, Kanada, Zeelanda Berria eta Kolonbiaren ondoren (7).



1. argazkia: Eutanasia eta suizidio lagunduaren estatus legala mundu mailan 2021. urtean

Iturria: (7)

Eutanasiaz hitz egiten dugunean, honek dakartzan ondorio guztiak hartu behar ditugu kontuan, gaixotasun orok desoreka sortzen baitu alderdi biologiko, psikologiko, sozial, familiar eta baita ekonomikoan ere (8). Kalkulatzen da gaur egun hogeit hamar milioi pertsona daudela mundu osoan bizitzaren amaieran nolabaiteko arreta behar dutenak. Horregatik guztiagatik, erizaintzak eta hezkuntzak zeregin garrantzitsua dute prozesu honetan; izan ere, bizitzaren amaiera, pertsona guztiek aurre egingo dioten bizitza-prozesuaren etapa bat da (9).

1.2 DIANA TALDEAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Osasun-programa gaixotasun terminalak dituzten pazienteak zaintzeaz arduratzen diren erizainei bideratuta izango da, paziente horiek baitira ohikoenak eutanasia eskatzen (6). Erizaintza jarduerak, pazienteen sufrimendua eta gainerako sintomak desagerraraztera bideratuko dira. Horregatik, erizain horiek eutanasia bezalako prozesu bat zuzentzen eta honi aurre egiten jakin behar dute, nahiz eta gaur egun Donostiako Arantzazu ospitalean nahiko gai berria izan ezkerro, gero eta ohikoagoa izango baita.

1.3 DIANA TALDEAK EUTANASIAREN INGURUKO EZAGUTZEN, GAITASUNEN, JARREREN ETA ITXAROPENEN IDENTIFIKAZIOA

Jakin badakigu 5.000 profesional inguruk jaso dutela hiltzeko laguntza emateko prozedurei, jarduera-protokoloei eta jardunbide egokien eskuliburuari buruzko prestakuntza, eta gehienak Osakidetzako profesionalak izan direla (6), baina kontsideratzen da legea denbora gutxi daramala indarrean, eta oraindik asko dagoela ikasteko, irakasteko eta hobetzeko. Hori dela eta, diana taldearen eutanasiaren inguruko ezagutzen, gaitasunen, jarrerren eta itxaropenen identifikazioa egin ahal izateko informazioa jasotzen lagunduko digun galdetegi bat prestatu da. (Ikus 1. Eranskina) Era hontan, Osasun Heziketa programaren bidez diana taldeak zer jakintza dituen eta zer lortzea espero duen baloratuko da. Galdetegia, osasun heziketa aurrera eramango duten 40 erizainei pasa aurretik, beste 8 erizainei pasa zaie, galdera guztiak ondo ulertzen direla eta interpretazio bakarra dutela ziurtatzeko.

2. HELBURUAK

OROKORRA: Donostiako Arantzazu ospitaleko gaixotasun terminaletaz arduratzen diren erizainei eutanasiaren prozesuari buruzko osasun programa bat diseinatzea.

ZEHATZAK:

- Eutanasia aztertzearen garrantzia justifikatzea.
- Talde diana zehaztea.
- Programaren metodologia deskribatzea.

- Helburu pedagogikoak finkatzea.
- Osasun programa martxan jartzeko beharrezko baliabideak identifikatzea.
- Osasun Heziketa Programaren edukiak deskribatzea.
- Kronograma planteatzea.
- Programaren ebaluazioa planifikatzea.

PIO EGITURA

Osasun hezkuntza-programa hau aurrera atera ahal izateko, PI(C)O estruktura jarraituko da, hiru itemetan oinarrituz. (Ikus 1. taula)

1. Taula: PIO egitura. Iturria: Propioa.

P (pazientea)	Donostiako Arantzazu ospitaletako gaixotasun terminaletaz arduratzen diren erizainak
I (interbentzioa)	Osasun hezkuntza-programa
O (emaitza)	Eutanasiari buruzko heziketa

3. METODOLOGIA

BILAKETA ESTRATEGIA

Lehenik eta behin, osasun heziketa programa bat garatzeko gaiaren inguruan informazio zientifikoa behar da. PIO egitura osatzeko, **deskriptoreak** (DeCS eta MeSH terminoak), eta **hitz gakoak** erabili dira datu-baseetan. Termino horiek **AND** operatzaile boolearraren bitartez lotu dira. (Ikus 2. Eranskina)

Bilaketa 2021eko urtarrilaren lehen hamabostaldian egin da hiru **datu-base** ezberdinetan: Biblioteca Virtual de la Salud (BVS), Dialnet eta Pubmed. Aipatutako datu base horietaz gain, “google académico”-ko artikuluak ere aukeratu dira. Osasun-programa osatzeko intentzioarekin, ikerketak eta protokoloak bilatu dira web gune ofizialetan: OME, Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (BOE), Euskadiko Duintasunez Hiltzeko Eskubide elkarte (DMD), Osakidetza, etab. Horrela, guztira, 30 informazio iturri desberdin hautatu dira. (Ikus 3. Eranskina) Bukatzeko, bilaketa bibliografikoa zehazteko **iragazkiak** eta **irizpide** zehatzak finkatu dira. (Ikus 2. Taula)

2. Taula: Barneratze eta kanporatze-irizpideak. **Iturria:** Propioa.

Barneratze irizpideak	Baztertze irizpideak
<ul style="list-style-type: none">• Eutanasian, zainketa aringarrietan, protokoloetan eta erizainen ezagutzan oinarrituak dauden artikuluak• Testu osoa eskuragarri izatea• Azkeneko 10 urteetako artikuluak izatea	<ul style="list-style-type: none">• Terminalak ez diren gaixotasunen artikuluak• Gorputz fisiologian zentratzen diren artikuluak• Gaztelania, euskara, ingelesa eta portuguesa ez diren hizkuntzetan idatzitako artikuluak• Beste profesional sanitarioen zainketak (psikologoa, langile soziala, etab.)

Lan honetan, eutanasiaren osasun heziketa programaren proposamena egin denez, proiektua aurrera eramanez ahal izateko, etikako komitearen eta osasun hezkuntza emateko aukeratutako instituzioaren baimena lortuko da. Hurrengo pausua, osasun heziketa hasi aurretik bi bilera egitea da, bat osasun hezkuntzaren buru izango den erizainarekin eta bestea Donostia Arantzazu ospitaleko koordinatzailearekin, prozesuan agente garrantzitsuak baitira.

4. PROIEKTUAREN GARAPENA

4.1. TALDE DIANA

Osasun hezkuntza Donostiako Arantzazu ospitalean proposatzea erabaki da, bertan, adin eta sexu desberdinetako erizainak aurkituz. Diana taldearen ezaugarriak desberdinak dira adinaren arabera, beraz, kontuan izanda osasun-programan 22-65 urte bitarteko erizainak parte hartuko dutela, hezkuntza-estrategia egokiak erabiliko dira. Hala nola, osasun-hezkuntza irakaskuntza eta esperientzia esanguratsutan oinarrituko da, parte-hartze aktiboa eta irakaskuntza norberak zuzendurikoa izango da, material lagungarria emango zaie, irakaskuntzari buruzko hausnarketa momentuak utziko zaizkie, jasaten ari diren egoerari ematen dioten esanahia baloratuko da (zerk kezkatzen dituen, egoera emozionala, zein arazo azaldu zaizkion, ...), irakaskuntza praktikan nola jartzen duten ebaluatuko da, irakaskuntzarako trabak aztertuko dira eta azkenik, motibazio maila baloratuko da.

Osasun heziketarentzako garrantzitsuak diren esparruak:

- ❖ **Zer egin?** Eutanasiari buruzko osasun heziketa programa bat gauzatzea.
- ❖ **Zertarako?** Profesionalei heziketa emateko eta haien ezagutzak areagotzeko.
- ❖ **Nori?** Donostiako Arantzazu ospitalean lan egiten duten 40 erizainei. Bi talde osatuko dira, goiz eta arratsaldeko ordutegiarekin. Gure lan-munduaren ordutegi aldaketak direla eta, malgutasuna kontuan izan da eta erizain bakoitza hobeto datorkion ordutegian joan izango da kurtsora, aste batetik bestera aldatzeko aukera izanez. Heziketa gazteleraz emango da eta baldintza gisa, erizain horiek gaixotasun terminalak pairatzen dituzten gaixoen ardurapean egon beharko dira.
- ❖ **Kaptazioa nola?** Ospitaleko zainketa intentsiboetako zerbitzuan kartelak jarriko dira. Kartelaren ondoan osasun programara apuntatu ahal izateko orri txuri bat utziko da goizez eta arratsaldeko tandak desberdinduz. Aste bat barru orria kenduko da eta bere izena eman duten lehen 40 erizainek izango dute heziketa jasotzeko aukera. (Ikus 4. Eranskina) Horrez gain, Yeshika Merino Perez, Osakidetzako erizain zuzendariarekin hitz egin dut mezua erizainen artean zabaltzeko asmoz.
- ❖ **Nork?** Donostiako Arantzazu ospitaleko Eutanasia komiteko buru den erizainak egingo du osasun heziketa.
- ❖ **Non?** Donostiako Arantzazu ospitaleko aretoa.
- ❖ **Noiz?** Kronograman zehaztutako egunetan.

4.2. HELBURU PEDAGOGIKOAK

Helburu orokorra: Erizainek heziketa jasotzea haien ezagutza areagotzeko helburuarekin.

Helburu zehatzak: Erizainek hurrengoak lortuko dute:

- ❖ Terminologia desberdinen identifikazioa demostratzea ikastaro amaierarako.
- ❖ Eutanasia prozesuan gaixoari eman beharreko zainketa aringarriak argi izatea ikastaro amaierarako.
- ❖ Pertsonaren alderdi psikogikoa lantzen jakitea ikastaro amaierarako.

- ❖ Prozesua martxan ipintzeko pausuak identifikatzea ikastaro amaierarako.
- ❖ Hiltzeko laguntza jasotzeko baldintzak izendatzeko gai izatea ikastaro amaierarako.
- ❖ Eutanasia modalitate desberdinak ezagutzea ikastaro amaierarako.
- ❖ Prozesuan zehar erabiltzen den medikazioa argi izatea ikastaro amaierarako.
- ❖ Prozesuan zehar suerta daitezkeen emozioen maneiuegokia adieraztea ikastaro amaierarako.

4.3. METODOLOGIA PEDAGOGIKOA

Erizainei ikasketa prozesuan laguntzeko, lehenengo gaiaren inguruan dakitena ezagutu behar da, sentimenduak identifikatuz. Ondoren, gaiaren inguruan egokitutako informazioa eman behar zaie. Azkenik, gairen inguruan erreflexionatu, hitz egin eta lortutako gaitasunak praktikan jartzea gomendatzen da. Ikasketa prozesua lortzeko, hainbat metodo eta teknika desberdin erabiliko dira. (Ikus 5. Eranskina)

4.4. EDUKIAK EDO GAITEGIA

Lehenik eta behin, aurretik aipatu bezala, landuko den gaiaren inguruan taldeak dituen ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak aztertuko dira galdetegi baten bidez (Ikus 1. Eranskina). Honek, osasun-hezkuntza xede-taldera gehiago egokitzea ahalbidetzen du.

Saioa bakoitzaren hasieran, osasun-agenteek taldea agurtu eta/edo beren burua aurkeztu ostean, hezitzaileek saioaren programaketaren berri emango dute, helburu eta edukiak zehaztuz. Osasun-hezkuntzaren osasun-agente arduraduna gaian aditua den Eutanasia Komiteko burua izango da eta haren eginkizuna jarduerak gidatzea eta koordinatzea izango da. Era berean, saio guztietan programaren eraginkortasuna baloratzeko beharrezkoak diren datuak biltzeaz arduratuko da. Berarekin batera, beste agente batzuk hartuko dute parte saio ezberdinetan zehar.

Osasun programa hau astean bitan burutuko diren 5 saioz osatuta dago. (Ikus 3. Taula) Saioek 2 orduko iraupena izango dute (12:00h - 14:00h eta 16:00h-18:00h) tartean 10 minutuko atsedena egongo delarik. Agente hezitzaileen disponibildadea dela eta, osasun-hezkuntza programa soilik gazteleraz emateko prestatu da, erizain guztiek ulertzeko asmoarekin.

3. Taula: Osasun heziketaren gaitegia. **Iturria:** Propioa

1. Saioa → Gaiaren sarrera + terminologiak zehaztea
2. Saioa → Gaixo terminalei eman beharreko zainketa aringarriak
3. Saioa → Eutanasia prozesuaren atalak
4. Saioa → Eutanasia aurrera eramatea
5. Saioa → Erizainaren autozainketa + sentimendu eta emozioen maneia

1. SAIOA: “Zer da eutanasia?”.

Helburuak:

- Osasun heziketaren partaideak elkar ezagutzea eta konfiantzazko inguru bat sortzea.
- Galdetegia pasa ostean, osasun heziketaren inguruan erizainen osasun beharrak izendatzea.
- Eutanasiaren gaiaren inguruan ezagutzen diren terminologiaren antzekotasunak desberdintzen jakitea.

Askotan, eutanasia bezalako gaiak lantzean, nahastu egiten dira itxuraz antzekoak diruditen terminoak. Bizi-amaierako prozesua hobetzeko hainbat lege-baliabide daude Espainian: sedazio leungarria, ahalegin terapeutikoaren egokitzapena, suizidio mediko lagundua eta eutanasia (10). Extremadurako ikerketa batean, terminologia-nahastea ikusi zen eutanasia suizidio mediko lagunduarekin parekatzean, baita eutanasia eta sedazioa bereizteko zailtasuna ere (11). Era azkar batean azalduz, eutanasia eta suizidio lagunduaren helburua pazientearen bizitzari amaiera ematea izango litzateke, osasun-langileek edo pazienteak berak emandako medikazioaren bidez. Aldiz, sedazio aringarriak eta ahalegin terapeutikoaren egokitzapenak, kontzientzia-maila murriztuz eta ongizate handiagorako tratamenduak egokituz, pazienteak sufrimendutik askatzea dute helburu, gaixoaren bizitza laburtuz eta sintoma erregogorak goxatuz. Bukatzeko, tratamenduari uko egiteari dagokionez, gaixoa bera da tratamendua kentzea erabakitzen duena, bere egoera alferrikakoa dela edo ez duela merezi uste baitu (10).

Definizio zehatzak eta horien inplikazioak ez ezagutzeak nolabaiteko nahasmena sortzen du erabakiak hartzerakoan. Horregatik, pazienteak eta, kasu honetan, erizainek argi izan behar dute horietako bakoitzaren esanahia.

Edukia

4. Taula: Lehen saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak. Iturria: Propioa.

TEKNIKA	IRAUPENA	BALIABIDEAK	OSASUN AGENTEAK
<u>Elkartze-teknika</u> Hezitzaile eta partaideen arteko lehen harremana emango denez, bakoitzak bere burua aurkeztuko du bere izena eta eutanasiarekin duen esperientzia adieraziz. Ondoren, hezitzaileek heziketa proiektuaren nondik norakoak azalduko ditu landuko denaren laburpen txiki bat eginez eta gaiari buruzko zenbait liburu eta filma gomendatuz, haien kabuz hausnartu ditzaten.	15'	- Diapositibak - Ordenagailua - Proiektorea	Eutanasia komite burua den erizaina
<u>Ikerketa-teknika: Galdetegia</u> Helburua erizainek eutanasiaren gaiari buruz daukaten ezagutza aztertzea da. Horretarako, galdetegi bat banatuko zaio erizain bakoitzari haien esperientzia eta ezagutzen identifikazioa egiteko asmoz eta osasun beharrak identifikatzeko. (Ikus 1. Eranskina)	25'	- Orriak - Boligrafoak	
<u>Ikerketa-teknika: Phillips 66</u> 4 pertsonako 5 taldetan banatuta "Eutanasiaren kontzeptua"ri buruzko 2 ariketa (Ikus 6 eta 7 Eranskinak) beteko dituzte. Talde bakoitzean ordezkari bat aukeratuko da informazioa biltzeko eta gero talde guztiarekin partekatuko dute. Hezitzaileak arbelan idatziko du agertutako ideiak, talde bakoitzak adierazitakoa sailkatuz. Helburua ikaskuntza esanguratsua aurrera eramatea da, hau da, gai honen inguruan alde aurretik dakitena identifikatzea.	30'	- Orriak - Boligrafoak - Arbela - Klariona	
ATSEDENALDIA		10'	
<u>Bideo bidezko hausnarketa teknika</u> Termino desberdinen (eutanasia, suizidio lagundua, tratamenduari uko egitea, sedazio leungarria) azalpenaren 2 bideo labor proiektatuko dira (12,13). Informazio berri honekin, berriro taldeka jarri eta aurretik egindako ariketaren eutanasiaren ikuspegia osatu beharko dute. Gainera, terminologiaren orri bat pasako zaio talde bakoitzari hauen ezaugarriak adierazteko. Bukatzean, erantzunak taldearekin partekatuko dira.	30'	- Ordenagailua - Proiektorea - Bozgoragailua - Orriak - Boligrafoak	Eutanasia komite burua den erizaina
<u>Agurra:</u> Landutakoaren laburpen bat egingo dute hezitzaileek puntu garrantzitsuenak azpimarratuz.	10'	- Ordenagailua - Proiektorea	

- 2. SAIOA:** Eutanasia prozesuan dauden gaixoei eman beharreko zainketa aringarriak.

Helburuak:

- Erizainek zainketa aringarrien kontzeptua eta garrantzia argi izatea.
- Zainketa aringarrien funtsezko 3 faktoreak ezagutzea.
- Pazienteari erosotasuna emateko modu desberdinak ezagutzea eta praktikan jartzea.

Zainketa aringarriak:

Zainketa aringarrien praktika klinikorako gidaren arabera, zainketa aringarriak bizitza mehatxatzen duten gaixotasunekin lotutako arazoei aurre egiten dieten pazienteen eta familien bizi-kalitatea hobetzen duen ikuspegia dira, prebentzioaren eta sufrimendua arintzearen bitartez. Hori guztia identifikazio goiztiarraren, minaren eta beste arazo fisiko, psikosozial eta espiritualen ebaluazio eta tratamendu akatsgabearen bidez burutzen da (14). Azken mendean aldaketa handia ikusi da eredu demografikoan, eta, horrekin batera, biztanleriaren bizi-itxaropenak eta aurrerapen tekniko eta medikoek gora egin dutenez, gaur egungo biztanleria zahartuta dagoela esan daiteke. Testuinguru horretan, azken urteetan gaixotasun terminalak dituzten pazienteen kopuruak gora egin du, eta, horregatik, gaixo horiek bizitzaren amaieran laguntzaren bat behar izatea espero da (15). Zainketa aringarrien helburua bi hitzetan laburbildu dezakegu: bakean hiltzea.

Mundu mailan, OMEren kalkuluen arabera, 40 milioi pertsona inguruk behar behar dituzte zainketa aringarriak urtean. Era berean, garrantzitsua da aipatzea biztanleria horren %14k soilik jasotzen duela behar duen laguntza aringarria; gainera, pertsona horiek herrialde garatuetan bizi dira (16). Argi dago osasun-arloko profesionalek zainketa aringarriari buruzko prestakuntzarik eta kontzientziatorik ez izatea oztopo garrantzitsua dela pazienteak zainketa horietara biderarazteko orduan. Kontuan izan behar dugu gaixoei ez dutela gaiari buruzko informazio nahikorik eta ez dituztela prozesuaren denborak ezagutzen, beraz erizainen ardura da informazio hori eskaintzea edo behintzat ezagutaraztea.

Horri guztiari familiari eskainitako arreta gehitu behar zaio. Taldearen lehen esku-hartzea familiaren emozio-maila baloratzea izango da. Hurrengo urratsa integrazioa planifikatzea izango da, hezkuntzaren, euskarri praktiko eta emozionalaren eta errehabilitazio arloan lagunduz (doluaren prebentzioa eta tratamendua) (17).

Zainketa Aringarrien Espainiako Elkartearen (SECPAL) arabera, fase aurreratuan edo terminalean dauden gaixotasunak dituzten paziente gehienak zainketa aringarrietan espezializatuta ez dauden profesionalek artatzen dituzte. Arreta hori zerbitzu ez-espezifikoetan ematen da, hala nola ospitale orokorretan (%56,9), etxean (%33) eta zentro soziosanitarioetan (%4,9) (18).

Erizain bezala, oinarrizko erizaintza-jarduerak burutzeaz gain, hala nola, konstanteak erregistratzea, eboluzioa baloratzea, erosotasuna ematea edo medikazioa administratzea (19), garrantzitsua da gaixoaren beharretara egokitzea. Murtzian 2021ean egindako ikerketa batean zainketa aringarriak hiru puntu nagusi hauetan laburbil zitezkeela ondorioztatu zen (14):

1. **Laguntza-sare soziala.** Familia, lagunak, osasun-taldea, gizartea eta enplegua. Pazienteek jakinarazi zutenez, ospitale batean zainduta egoteak, erosotasuna transmititzen zien. Beren prozesuan zehar erizainaren papera honako termino hauekin deskribatu zuten: «Zaintzeko trebetasunak», «Enpatia», eta «konfiantzazkoa». Gainera, argi geratu zen gaixoaren antsietateak behera egiten zuela zainketetan erizainen papera hautematen zutenean; izan ere, erizainen presentziak bakardade-sentimendua murrizten zuen eta pazienteak lasaitzea eragiten zuen (20).
2. **Konfort esku-hartzeak.** Jakina da masaje lasaigarri batek, pazientearen kexak entzuteak, elkarrizketa soil batek, besarkada batek edo eskutik heltzeak pazientearen erosotasuna areagotzen dutela. Horretaz gain, frogatu da pazientearen sintomak arintzen laguntzen duten zenbait interbentziok (bainu bat ematea, erradioterapia erabiltzea, musikoterapia aplikatzea...), mina, bihotz-maiztasuna, nekea eta antsietatea murrizten dituztela (14).

3. **Komunikazioa.** Lehenik eta behin, pazienteak eta haren familiak gaixotasunari buruz zer dakiten egiaztatu behar da, osasun-langileek pazientearen ezagutzak ebalua ditzaten. Informazioa argia, laburra eta ulerterraza izan behar du (20). Hori alde batera utzita, komunikazioa hitzetatik eta edukitik haratago doa. Adi entzutea, begiratzea eta jarrera aktiboa izatea, neurri terapeutiko eraginkorrak izan daitezke fase terminalean dauden pazienteentzat (14). Erizaintzako langileek hainbat komunikazio-trebetasun erabili behar dituzte; hala nola egoera kontrolatzea, familiaren aliatua bilakatzea eta enpatiaz erantzutea (20). Hau aurrera eramateko, galdera eta erantzun egokiak formulatu behar dira (Ikus 8. eranskina) (21). Amaitzeko, baditugu hainbat komunikazio-oztopo, ohikoenak denbora eza, langileen heziketa eta prestakuntza eza, lan-karga eta, pazientearen eta erizainaren arteko kultura-desberdintasunak direlarik (20).

Edukia

5. Taula: Bigarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak. **Iturria:** Propioa.

TEKNIKA	IRAUPENA	BALIABIDEAK	OSASUN AGENTEAK
<u>Elkartze-teknika</u> Osasun agenteak bere burua aurkeztuko du bere izena eta lanbideko esperientzia adieraziz.	10'		Mabel Marijuan, eutanasian ulertua den erizaina eta EHUko irakaslea
<u>Aurkezpen bidezko hausnarketa teknika</u> Power-point bat erabiliko da zainketa aringarriei buruzko informazioa emateko. Era honetan, Mabelek azalpena ematen duen bitartean, beste erizainek, ideia nagusiak orri batean apuntatu eta puntu garrantzitsuenak barneratzen joango dira.	35'	- Ordenagailua - Proiektorea - Orriak - Boligrafoak	
ATSEDENALDIA		10'	
<u>Gaitasunak garatzeko teknika: Rol playing</u> Erizain bikoteka jarriko dira eta paziente/erizain rola banatuko dituzte beraien artean. Hau horrela izanda, zainketa aringarriak behar dituen paziente batean eta zainketa aringarriak ematen dituen erizain batean bilakatuko dira. Lehenengo aldia da elkar ezagutzen dutela, beraz komunikazio estrategia egokiak erabili beharko dituzte azalpenean ikasitakoaren arabera. 10 minutu barru, rol aldaketa egingo da, oraingoan paziente eta erizainaren harremana estua izanik. Bitartean, hezitzailea erizainen habilezia zein oztopoak baloratzen joango da. Bukatzeko, erizain bakoitza, paziente gisa detektatu dituen hobekuntzak identifikatuko ditu, klasean konpartituz.	30'	- Orriak - Boligrafoak	Mabel Marijuan, eutanasian ulertua den erizaina eta EHUko irakaslea
<u>Ikerketa-teknika: Phillips 66</u> Banaka, erizain bakoitzak “Bateragarriak al dira zainketa aringarriak eta eutanasia?” galderari erantzuna eman beharko dio, hau justifikatuz.	10'	- Orriak - Boligrafoak	
<u>Diskusio bidezko hausnarketarako teknika: Eztabaida</u> Aurreko ariketa amaitzean, baietz erantzun duten erizainak aretoaren alde batean ipiniko dira, eta ezetz erantzun dutenak beste aldean. Era honetan, eztabaida txiki bat burutuko dute, aldeko eta kontrako argumentuak emanez.	15'		
<u>Agurra:</u> Hezitzaileak landutakoaren laburpen bat egingo du eta suertatu diren zalantzak argituko ditu.	10'	- Ordenagailua - Proiektorea	

3. SAIOA: Eutanasia prozesuaren atalak.

Helburuak:

- Erizainek Aldez Aurreko Borondateen dokumentuaren garrantziaz ohartaraztea.
- Erizainek prozesuaren atalak desberdintzen eta pazienteari azaltzen jakitea.
- Erizainek prozesuan zehar parte hartzen duten osasun profesionalak identifikatzea.
- Erizainek prozesuaren denbora eta epeak ezagutzea.

Nola eskatzen da eutanasia?

Pazientea bere kabuz erabakitzeko gai ez denean oso baliagarria den eta familia zein osasun-profesionalentzat laguntzazkoa den dokumentu bat existitzen da. Etapa horretan, pertsonen eskubideak eta duintasuna lege bidez daude bermatuta EAEn. Gaixorik egonik beren iritzi propioa adierazteko ezintasuna duten pertsonen eskubide hori babesteko modurik onena **Aurretiazko Borondateak** dira (Ikus 9. Eranskina). Hemen, pertsonak, etorkizunean zer osasun-zainketak jaso edo baztertu nahi dituen planifikatzen da. Helburu nagusia pertsona gaixo horrek erabakietan parte hartzeko gaitasuna galtzen duenean, ematen zaion osasun-arreta aldez aurretik adierazitako lehentasunen arabera dela ziurtatzea izango litzateke (22). Euskadi mailako datuak lortzeko asmoarekin, Gaizteizko Registro de Voluntades Anticipadas taldearekin jarri naiz kontaktuan baina haien erantzuna inskripzio-kopuruari buruzko datuak laister argitaratuko dituztela izan da. Hala ere, Aurretiazko jarraibideen erregistro nazionalaren (RNIP) arabera, hauek dira gaur egungo datuak lurraldearen, urtearen, sexuaren eta adinaren arabera (23). (Ikus 10,11,12 Eranskinak)

Eutanasia eskatzeko baldintzak betetzen dituzten (Ikus 13. Eranskina) eta hiltzeko laguntza eskatu nahi duten pertsonak hainbat pausu bete behar dituzte. Urrats horiek (Ikus 14. Eranskina), dena ondo badoa, 30-40 egun bitarte iraungo dute, eta eskaera pertsonala, askea, hausnartua eta eutanasiaren legean aurreikusitakoarekin bat datorrela ziurtatzeko aurreikusita daude (24). Nahiz eta erizaina urrats guztietan ez parte hartu, garrantzitsua da pausuak ondo identifikatzen jakitea gero gaixoa lagundu ahal izateko (Ikus 15. Eranskina) (25).

1. URRATSA: Mediku arduraduna bilatzea. Gaixoak hiltzeko laguntza jasotzeko prozesuan lehen mailako arretako edo ospitaleko arretako mediku arduraduna aukeratu ahal izango du. Mediku batek eutanasia-eskaera izapidetzeko erantzukizuna onartzen duenean, automatikoki, eskatzailearen mediku arduradun bilakatzen da. 1. eskaera, haren aurrean sinatu beharko da, izenpetzeko, historia klinikoan sartzeko eta legeak ezartzen duen asistentzia-prozesuaren epeak hasi ahal izateko. Baldintzak betetzen baldin badira, gehienez bi eguneko epean, mediku arduradunak eztabaida-prozesu bat egingo du pazientearekin.

2. URRATSA: 15 egunera bigarren eskaera egiten da. Eskaera mediku arduradunari aurkeztuko zaio, eta bi egun barru, eztabaida-prozesuari ekingo dio berriro, behar den informazioa hurrengo 5 egunetan osatuz. Deliberazio-prozesutik 24 ordura, eskatzaileak jarraitzeko borondatea berretsi beharko du, eta mediku arduradunak, lehenago egin ez badu, erizain-taldeari eta eskatzaileak erabakitzen dituen senideei prozesuaren berri emango die. Eskatzaileak baimen informatua sinatuko du.

3. URRATSA: Mediku aholkulariaren azterketa klinikoa. Mediku arduradunak mediku aholkulari bati galdetu behar dio, eta hark, gaixoaren historia aztertu ondoren, legearen baldintzak betetzen direla berretsi eta txosten bat egin beharko du, 2. eskaera egin denetik 10 eguneko epean. Aholkulariak «pazienteak dituen patologien arloan prestakuntza» izan behar du, eta «ez du aldeztatik asistentzia-loturarik izango eskatzailearekin».

4. URRATSA: Berme- eta ebaluazio-batzordeak (CGE) aldeztatik egiaztatzea. 3 egunetan, mediku arduradunak agiri guztiak helarazi behar dizkio CGEri. 2 egun barru, CGEko lehendakariak batzordeko bi pertsona (medikua eta legegaria) izendatzen ditu, historia aztertu eta osasun-taldearekin eta eskatzailearekin elkarrizketatzeko aukera izan dezaten, eta 7 eguneko epean txostena egin dezaten. Lehendakariak 2 egun ditu emaitza mediku arduradunari eta eskatzaileari jakinarazteko.

5. URRATSA: Hiltzeko laguntza ematea. CGEren irizpena aldekoa bada, heriotzaren egunari eta orduari buruz osasun-taldearekin ados jartzeko unea da. Gaixoak aukeratzen du nola eta non egin, baldin eta osasun-taldearen oniritzia izan. Heriotzaren momentuan zein pertsona, maskota, musika, lore, usain... egongo den aukeratu beharko du eskatzaileak (25).

Edukia

6. Taula: Hirugarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak. Iturria: Propioa.

TEKNIKA	IRAUPENA	BALIABIDEAK	OSASUN AGENTEAK
<u>Elkartze-teknika</u> Osasun agenteak bere burua aurkeztuko dute beren izena eta lanbideko esperientzia adieraziz.	10'		Rebeca, zainketa aringarrietako medikua
<u>Aurkezpen bidezko hausnarketa teknika</u> Power-point bat erabiliko da eutanasia eskatzearen urratsak atalka azaltzeko. Erizainak bitartean, apunteak hartzeko aukera izango dute orri txuri batean.	30'	- Ordenagailua - Proiektorea - Orriak - Boligrafoak	
<u>Hausnarketarako teknika ariketa bitartez</u> Erizainek eutanasia eskaera baten flujograma baten hutsuneak bete beharko dituzte 4 pertsonako 5 talde osatuz (Ikus 16. eranskina). Flujograma ordenagailuan proiektatuko da eta arbelean aukera posible guztiak ipiniko dira era desordenatu batean. Talde bakoitzak, orri batean, pausuak eutanasia eskatzearen prozesuaren arabera ordenatu beharko ditu, aurkezpenean eman den informazioa ulertu dutela erakutsiz. Bukatzean, ariketa guztion artean zuzenduko da.	20'	- Ordenagailua - Proiektorea - Arbela - Klarionak - Orriak - Boligrafoak	
ATSEDENALDIA		10'	
<u>Irakurketa bidezko hausnarketa teknika</u> Erizainek Aldez Aurreko Borondateen dokumentuari buruzko iragazki labur bat irakurriko dute (Ikus 17. Eranskina) eta atentzioa deitu dien 3 ondorio atera beharko dituzte. Ondoren, aretoan eta guztion artean ikuspuntu desberdinak komentatuko dira.	25'	- Iragazkiak - Orriak - Boligrafoak	Eutanasia komite burua den erizaina
<u>Hausnarketarako teknika ariketa bitartez</u> Erizainei Aldez Aurreko Borondateen dokumentu bat banatuko zaie ofiziala dela simulatuz (Ikus 9. Eranskina). Honekin, dokumentuaren atalak ezagutzea, garrantziaz kontzientziaztea, azkar egiten dela demostratzea eta dokumentua egiteko motibazioa ematea lortu nahi da.	20'	- Aldez Aurreko Borondateen dokumentuak - Boligrafoak	
<u>Agurra:</u> Suertatu diren zalantzak argituko dira eta eutanasia prozesuaren urratsak era labur batean azaltzen dituen dokumentu bat banatuko zaio erizain bakoitzari (Ikus 14. Eranskina).	5'	- Dokumentuak	

4. SAIOA: Eutanasia aurrera eramatea.

Helburuak:

- Erizainek eutanasia bat aurrera eraman ahal izateko gai izatea.
- Erizainek eutanasiaren modalitate desberdinak desberdintzen jakitea.
- Erizainek heriotzaren momentuan erabiltzen diren medikamentuak, denborak, dosiak eta administratzeko bideak menderatzea.

Nola egiten da eutanasia bat?

Osasun arloko profesionalek ahalik eta kontu eta profesionaltasun handienarekin eman behar dute hiltzeko laguntza. Eutanasia egiten den bitartean, asistentzia-taldeko osasun-profesionalek prozesu osoan zehar egon behar izango dute. Funtsezkoa da heriotzaren unera joango diren profesionalek gaixoa eta haren prozesua ondo ezagutzea, oso une intimoa eta, tentsio eta urduritasun handikoa baita. Horregatik, osasun-langile askok egokitzen jotzen dute praktika egingo den lekura egun batzuk lehenago joatea, eskatzailearekin hitz egiteko, lan egingo duten eremua ezagutzeko eta zain-bideak baloratzeko. Zainbide zailak baldin baditu, kateter zentral bat jartzea adieraziko da. Heriotzaren egunean, osasun-profesionalek beharrezko material guztia eramango dute aukeratu den lekura, paziente bakoitzarengatik 2 kit eramanez, medikazio-akatsak prebenitzeko eta administrazioa errazteko.

Eutanasia egiteko orduan, bi modalitate-aukera daude.

1. modalitatea

Medikuak pazienteari zain barnetik zuzenean medikazioa administratzean datza. Aukera honek hainbat alderdi positibo ditu; izan ere, administrazioa erraza, eraginkorra eta ia kasu guztietan erabil daitekeen administrazio-bidea da. Hala ere, batzuetan zaila izan daiteke etxe edo egoitza batean zain-bide bat hartzea. Gomendatutako prozedura eta sendagaiei dagokienez, praktika burutzeko unea 4 urratsetan banatuko litzateke: aurremedikazioa, adyubantea edo laguntzailea, komaren induktorea eta blokeatzaile neuromuskularra, bakoitza beharrezko sendagaiekin (Ikus 18. Eranskina). Funtsezkoa da zain-bide egokia (ahal bada 18GB kalibreakoa) eta egonkorra ziurtatzea prozesu osoa

hasi aurretik, porrot-tasak minimizatzeko. Bigarren bide osagarri bat izatea ere gomendatzen da badaezpada. Sendagai bakoitza administratu ondoren, kateterra suero fisiologikoarekin garbituko da medikazio guztia pasa dela ziurtatzeko (26).

2 modalitatea:

Medikuak medikazioa helarazten dio pazienteari, pazienteak berak autoadministratzeko, bere heriotza eraginez. Prestazio-modalitate honen barruan, bi administrazio-bide bereiz daitezke:

1. **Ahozko administrazioa.** Pazienteak hartzen ditu laguntza-taldeak emandako sendagaiak. Prozedura eta gomendatutako medikamentuei dagokienez, praktika egiteko unea 2 urratsetan banatzen dugu: aurremedikazioa eta koma induktorea, bakoitza beharrezko sendagaiekin (Ikus 19. Eranskina). Sendagaia hartzean, pazienteak Fowler posizioan egongo da, gutxi gorabehera 45-60°ko posizioan. Normalean, zainbarneko bide bat jartzen zaie paziente guztiei prozesua hasi aurretik, beharrezkoa balitz erabili ahal izateko, eta gomendatzen zaie 6 orduko baraua egitea, koma eragiten duen sendagaia hartu baino ordubete lehenago otordu arin bat hartuz. Pazienteak botaka egiten badu, zainbarneko bidea erabiltzea komeni da. Koma eragiten duen medikamentua ematen denetik heriotzaren unea iristen den bitarteko denbora-tartea aldatu egiten da pertsonatik batetik bestera, baina, kasu gehienetan, 30 minutu baino gutxiago behar izaten dira. Hala ere, batzuetan denbora gehiago eraman dezake (2-3 ordu).
2. **Zainbarneko administrazioa.** Kasu honetan, tratamendua zainbarnetik administratuko da, eta pazienteak izango da koma eragiten duen sendagaiaren infusio-ponparen giltza irekitzen duenaren arduraduna; horrela, pazienteak berak hasiko du prozesua. Erabili beharreko sendagaiak eta emateko jarraibideak administrazio zuzenaren modalitatean azaltzen diren berdinak dira. Hala ere, kontuan izan behar da midazolam dosia (aurremedikazioa) egokia izan behar dela sedazio kontziente bat sortzeko eta pazienteak giltza ireki ahal izateko. Sendagaiaren fitxa teknikoaren arabera, dosi hori 0.5mg eta 2.5mg artekoa izango da, pazientearen adinaren arabera (26).

Edukia

7. Taula: Laugarren saioan erabiliko diren teknika pedagogiko eta baliabideak. Iturria: Propioa.

TEKNIKA	IRAUPENA	BALIABIDEAK	OSASUN AGENTEAK
<u>Elkartze-teknika</u> Osasun agenteak bere burua aurkeztuko du bere izena eta lanbideko esperientzia adieraziz.	10'		Arantxa Waliño, etxeko ospitalizazioko erizaina eta Eutanasia Batzordeko kidea
<u>Aurkezpen bidezko hausnarketa teknika</u> Hezitzaileak power-point bat erabiliko du gaiaren aurkezpena egiteko. Bertan, eutanasiaren modalitate desberdinak eta momentu bakoitzean erabili behar den medikazioa administratzeko erak azalduko ditu. Erizainak bitartean, apunteak hartzeko aukera izango dute orri txuri batean.	30'	- Ordenagailua - Proiektorea - Orriak - Boligrafoak	
<u>Bideo bidezko hausnarketa teknika</u> Aurkezpenean aipatu berri den kit-aren azalpen sakonagoa egiteko asmoarekin, osasun-programaren egileak eutanasia komitearekin batera egindako bideo bat ipiniko da, kit-ak barruan daraman materiala era bisualago eta errazago batean erakutsiz (Ikus 20. Eranskina).	10'	- Ordenagailua - Proiektorea - Bozgoragailua	
ATSEDENALDIA		10'	
<u>Hausnarketarako teknika ariketa bitartez</u> Erizain bakoitzari 15 esaldi dituen orri bat emango zaio (Ikus 21. Eranskina). Haien eginkizuna, esaldi horiek egia edo gezurra diren identifikatzea izango da, erantzunak justifikatuz.	25'		Arantxa Waliño, etxeko ospitalizazioko erizaina eta Eutanasia Batzordeko kidea
<u>Gaitasunak garatzeko teknika: Rol playing</u> Bi erizain boluntario aretoaren aurreko aldera aterako dira, bat erizain papera eginez eta bestea medikuarena. Eutanasia eskatzailearen etxera iristen diren momentutik antzerki inprobisatu bat egin beharko dute, eman beharreko urratsak jarraituz, galderak eginez, medikazioa prestatuz eta denborak errespetatuz. Bukatzeko, guztien artean antzerkiaren alderdi positiboak zein hobetzeko alderdiak komentatuko dira.	30'	- Panpina - Materialaren kit-a	
<u>Agurra:</u> Hezitzaileak landutakoaren laburpen bat egingo du eta suertatu diren zalantzak argituko ditu.	5'		

5. SAIOA: Erizainaren autozainketa + Sentimendu eta emozioen maneia.

Helburuak:

- Erizainek eutanasiaren prozesuan sor daitezkeen estres-egoerei behar bezala aurre egiteko baliabide psikologikoak izatea.
- Burnout sindromearen sintomak identifikatzea eta gainditzeko teknikak ikastea.
- Atsedeen-denboran lanetik behar bezala deskonektatzea lortzeko jarraibideak ikastea.
- Emozioak maneiatzeko teknika nagusiak erabiltzea.

Burnout sindromea

Zainketa aringarrietako erizainek heriotza eta dolua bezalako egoera gogorak bizi izaten dituzte haien egunerokoan. Laneko egoera estresagarri horiek, burnout sindromearen garapena erraztu dezakete. Burnout-a profesional askoren artean, osasun profesionalak barne, agertzen den hiru dimentsiotako sindromeari deritzo (27).

Lotutako faktore nagusiak okupaziozkoak (lan-karga, konpromezua, lan-giroa, kontziliazioa eta pazienteekiko eta familiarrekiko harremanak) eta psikologikoak (estrobertsioa, ahulezia, bizitzaren zentzua eta afektu negatiboa) dira batez ere (28). Gainera, ikerketa batzuen arabera, burnout sindromeak laneko akats kopurua handitzen du, arretaren kalitatea eta segurtasuna murrizten ditu, eta gaixotasunagatiko bajak edo lanbidea uztea errazten du. Guzti honen ebaluazio globala egin ahal izateko, mundu mailan erabiltzen den tresna nagusia Maslach Burnout Inventory (MBI) galdetegia da (27) (Ikus 22. Eranskina).

Eutanasia artatzen duten bitartean, erizainek hainbat sentimendu izaten dituzte. Ikerketa baten arabera, sentimendu horien artean, prozesua beraren intentsitatea nabarmentzen da, erizainen esperientziak definitzeko gehien erabiltzen den adjektiboa bilakatuz. Era berean, erantzukizun eta kezka handia sentitzen dutela adierazi dute, pazienteei modu lasaian eta duintasun- eta errespetu-giroan hiltzen lagundu nahi dietelako. Bestalde, heriotzaren unea ere esperientzien faktore erabakigarria da.

Eutanasia lasaitasun eta duintasun testuinguru batean garatzen bada, erizainek modu positibo eta baikorrean esperimentatzen dute prozesua, benetan laguntza eskaini ahal izan dutela uste baitute.

Sindrome horrek prebalentzia handia du erizainen artean, eta, horregatik, zainketa aringarrietako erizainen lan-baldintzak hobetzeko eta akidura murrizteko esku-hartze batzuk ezarri behar dira (28). Gaian gehiago murgiltzeko asmoz, erizaintzako lehen laguntza emozionalen plataformak digitalean izena eman dut (29). Ikastaroa otsailean hasi zen eta 2023ko otsailean bukatzen da eta lanerako oso lagungarria izan da.

Baliabide psikologikoak.

Funtsezkoa da bakoitzaren burua zaintzea besteak zaindu ahal izateko. Beraz, besteei lagundu ahal izateko, bizkar gainean daramagun motxila hori husten ikastea derrigorrezkoa da. Horregatik, bizimodu positibo eta osasungarri bat eramateak, estres-faktoreak gutxitzen eta prozesuan zehar emozioak eta sentimenduak hobeto kontrolatzen lagunduko du. Emozio guztiek, positibo zein negatiboek, beren bertsio toxikoa dute muturrera eramanez gero. Gakoa haietaz jabetzea eta balioesten jakitea da (Ikus 23. eranskina). Egunerokoan jarraitu beharreko aholkuen artean, honako hauek gomendatzen dira (29):

- Eguna ondo hastea, errutinak aldatuz eta zenbait jarduera eginez; hala nola, meditazioa, yoga, dutxa bat hartu edo, besterik gabe, gosari on bat hartu.
- Kirola egitea, endorfinak (ongizate emozionala sentiarazten digun hormona) askatzea eragiten baitu.
- Elikadura zaintzea, energiaren eta umore onen sentitzea.
- Atsedena hartzea, loaren kalitatea zaintzea guztiz garrantzitsua baita.
- Eguneroko bat idaztea. Sentitzen duguna hitzetan jartzeak pentsamendua antolatzen laguntzen du, nor bere burua ezagutzen laguntzen du eta errealitate hobeto egokitzen diren interpretazio berriak sortzeko aukera ematen digu.
- Zaletasunei denbora eskaintzeak tentsioak eta estres akumulatua askatzea eragiten du.

